

Baliozko Proposamena:

"Teaching" guztiz berritzailea da eta, akademia edo beste ikasteko metodorekin alderatuz abantaila paregabeak eskaintzen ditu, gure aplikazioaren erabiltzaile izango diren bezero segmentu bakoitzari egokituak. Gure APPa bi talde nagusik osatuko lukete, alde batetik, laguntza behar duten ikasleek eta bestetik irakasle bezala jardungo duten ikasleek.

Laguntza behar duten ikasleei dagokionez, gure aplikazioaren bidez ikasle hauei laguntza partikularra eta guztiz beraien beharretara egokitzen dena jasotzeko aukera edukiko dute. Gainera, gure konpetentziarekin alderatuta (akademiak), gure aplikazioko irakasleak aurretik ikasleak izandakoak edo ikasleak direnez, inor baino hobeto ulertuko dituzte laguntza behar duten ikasle horien arazoak eta beharrak, beraien ere berdina bizi izan dutelako, eta arazo horiek azaltzerakoan gure iritziak ikasle horiek izango dira aproposenak.



Gainera, gure aplikazioak klase partikularrak eskaintzen dituenek (ikasle bakoitzeko irakasle bat egongo litzateke), akademietan klase berean jende asko egotearen ondorioz askotan sortzen diren despisteak ekiditea lortzen dugu. Hau guztia laburbilduz, gure aplikazioak ikasleei haien zailtasunak gainditzeko modurik eraginkorrena eskaintzen die, akademia edo beste edozein metodo baino askoz ere efizienteagoa.



Irakasle bezala jardungo duten ikasleen kasuan, hauei ere aukera paregabe bat eskaintzen diegu, dirua irabazteko aukera hain zuzen ere. Irakasle bezala jardungo zuten ikasle hauek ezarriko lukete beraien klaseen prezioa. Hori gutxi balitz, gure aplikazioaren bidez lan esperientzia bat edukitzeko aukera edukiko dute gaztetatik.

Baina, nola funtzionatuko du honek guztiak? Oso erraz. "Teaching" jaitsi eta erregistratzerakoan bi aukera egongo lirateke, alde batetik irakasle gisa erregistratzeko aukera eta bestetik ikasle gisa erregistratzekoa. Irakasleen kasuan, havek perfil bat egin beharko lukete beraien inguruko informazioarekin, hau da, zer gai kontrolatzen dituzten hoberen, zer ordutegitan erakutsi dezaketen, zer preziotan... Bestalde, ikasle bezala erregistratzen direnek, zer gaietan behar duten laguntza adierazi beharko lukete, eta zer ordutegitan jaso nahiko luketen klasea, eta datu haven arabera aplikazioak irakasleen hainbat perfil bilatuko lituzke. Orduan, ikasleak perfil guztien artean gehien gustatuko litzaiokeen irakaslea aukeratuko luke, eta mezu baten bidez irakasleari jakinaraziko lioke zer gai eta noiz erakutsi beharko liokeen.

Aurrekoaz gain, klasea presentziala (ikaslearen etxean) edo online egin ahalko litzateke, eta klasea amaitutakoan ikasleak irakasleari aurretik ezarritako dirua ordaindu beharko lioke. Gainera, klasea amaitutakoan ikasleak irakasleak baloratzeko aukera edukiko luke, iruzkin baten bidez edo 1etik 5era izarrak emanez, eta hortik aurrera ikasle batek irakasle hori kontratatzerakoan aurretik jasotako balorazioak ikusi ahalko lituzke.